

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1083

33/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 10ekoa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena. Haren bidez Izaskun Elortegi Kaiero izendatzen da, aldi baterako, Gernikako eta Bermeoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroko osasun mentaleko unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean. Izendapena lau urterako da; hala ere, luza daiteke.

Uztailaren 23ko 592/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen osasun mentaleko unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa bidez, Gernikako eta Bermeoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroetan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Aurkeztu diren eskabideak baloratu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behar den izendapen-proposamena egin du. Kontuan hartuta Izaskun Elortegi Kaiero andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak, erabaki du hura izendatzea, osasun mentaleko unitateburu lanpostua betetzeko Gernikako eta Bermeoko Osasun Mentaleko Helduen Zentroetan, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko.

Bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau erkidearekin, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Izaskun Elortegi Kaiero andreak izendatzea, aldi baterako, Gernikako eta Bermeoko Helduen Osasun Mentaleko Zentroetako osasun mentaleko unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Bigarrena.– Izendapena lau urterako izango da; hala ere, luza daiteke, bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau erkidearekin; eta ondorioak izango ditu 2020ko otsailaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Epea bukatutakoan izendatuak lanpostua utziko du, baldin eta luzapena onartu ez bada; bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulurekin.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango da kargutik, baldin eta aldeztu aurretik kontrako espediente zabalduta bada, eta aintzat hartu badira ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. Artikuluko 6. Atalean aurreikusi diren lekualdatzeko arrazoiak.

Bosgarrena.– Ebazpen hau jakinaraziko zaie interesdunari eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko Zuzendaritzari.

2020ko otsailaren 25a, asteartea

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, ebazpenaren iragarria EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2020ko urtarrilaren 10a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea,
CARLOS PEREIRA RODRÍGUEZ.